



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

PSE-EE PSOE - MOZIOA

158/2018

ORG12I07C

Código de validación/Balidazio kodea
4E0C250R4J3T2J4200PT



GAIA

2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako pentsioen egoeraren inguruan PSE-EE PSOEek aurkeztu duen mozioa.

Juan Carlos Abascal Candás Ermuko Udalean Talde Sozialistaren bozeramale denak, indarrean den Arautegiaren babesean ondorengo MOZIOA aurkeztu du Udalbatzarrak eztabaidatu eta azter dezan:

AZALPENA

Gobernatzen daramatzan urteetan Alderdi Popularra egiten ari den politikak arriskuan jartzen du gure pentsioen sistema publikoaren oreka finantzarioa, horrek sistemaren bideragarritasunean eta iraunkortasunean dituen ondorioekin, eta horrek pentsioen etorkizunaren inguruan alarma sortu du espainiar gizartean, bai une honetan pentsioa jasotzen ari direnentzat eta bai etorkizunean jasotzeko esperantza duten haientzat.

Bere enplegu-politikari, kontratu ezegonkor, soldaten debaluazio eta lan-esplotazioko ereduari oinarritua, kotizazio-oinarriak gutxitzeagatik gizarte segurantzaren kutxan eragin zuzena duena, pentsiodunen eskubideak eta etorkizuneko pentsiodunen eskubide-itxaropena murriztera, eta Gizarte Segurantza sistemaren diru-sarrerak gutxitzea daraman politika gehitzen zaio.

Horrela interpretatu behar da enplegua sortzeko darabilen pizgarri-politika, murrizketa, salbuespen eta tarifa laueta oinarritua, lortu nahi den helburua lortzeko ezeraginkorra, kostu osoa Gizarte Segurantzak jasaten duela, nahiz eta horiek Estatuaren Aurrekontuarekin finantzatu behar diren.

Erabaki horiek Toledoko Itunaren gizarte- eta politika-elkarrizketatik kanpo eta horren gomendioen kontra hartuak izan dira.

Egoera horrek lehen aldiz sortu du gure demokrazian pentsioen sistema publikoak X. Legegintzaldi osoan zehar gero eta defizit handiagoa izatea.

Horregatik guztiagatik Ermuko Udaleko Udalbatzarrak honakoa eskatzen dio Espainiako Gobernuari:

1. 2018rako aurreikusitako Aurrekontu Orokorrek, Konstituzioaren aginduak betetzeari utzita, ez dezala pentsioen egoera are gehiago kaltetu.

2. Pentsioak KPIrekin batera haz daitezela, zeren pentsioen 0,25eko hazkundera guztiz aldentuta baitago datorren urteko KPIren hazkunde-aurreikuspenetik, %2a inguruan egongo dena.

3. *Estatuko Administrazio Orokorrari Iraunkortasun Faktorea ez aplikatzeko eskatzea, %18 eta 20 bitarteko galera suposatuko duelako pentsio guztietan orokorrean.*

4. *“Nagusiak” antolakundeari eta antzerako ordezkaritza duten beste batzuei hizketakide baliadun izaera aitortzekiela pentsiodunen eskubideei dagozkien erabaki politiko guztiak hartzeko.*

5. *Egungo pentsio-legeria, 2013koa, ordezkatu duen beste legeria bat negoziatu dezala, pentsiodunen ordezkariak solaskide direla.*

6. *Pentsiodunei nahikotasun ekonomikoa bermatzeko Konstituzioaren agindua (Konstituzioaren 50. artikulua) bete dezala: pentsioak aldi-aldi eguneratuz eta behar besteko zenbatekoak ezarriz).*